

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Iberoko dorrea eraberritzen hasi da Leitza eta Goizuetako ingurunean

Goiburuak hitzarmena sinatuko du bi udalerriekin inguruari balioa emateko eta Erdi Aroko burdinolarako sarrera errazteko

Asteazkena, 2017.eko uztailak 26

Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatuko du Leitza eta Goizuetako Udalekin, Iberoko dorrea eraberritzea errazteko eta dorrea kokatzen den Erdi Aroko burdinola zaharraren ingurunerako sarrera eta herritarrek bisitatzeko aukera bultzatzeko. Lanak Kulturako Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzearen Institutioak egingo ditu.

Erabakiaren testua gaurko (asteazkena) bilkuran onartu da, eta egun gutxi barru sinatuko dute Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilaria den Ana Herrerak, Leitza alkatea den Mikel Zabaletak eta Goizuetako alkatea den Unai Loiarrek. Helburua da dorrearen parajeari eta Iberoko Erdi Aroko burdinola zaharrari balioa ematea, herritarrek gozatzeko aukera sustatzearekin eta erraztearekin batera, ezagutu, preziatu eta errespetatu dezaten.

Dorrea eraberritzeko lanak jada hasi dira. Aurrekontua 524.266 eurokoa da, eta maiatzean Zubillaga SA Eraikuntza-enpresari esleitu zitzaion, sei hilabeteko epean egiteko.

Bestalde, Leitza eta Goizuetako Udalek bertara eta ingurura joateko bideak egin eta aparkalekua jarriko dute. Horrez gain, dorreari erantsitako baserria kontserbatuko dute, eta Erdi Aroko burdinolaren hondakinei balioa emango diete. Jarduera horiek auzolanen bitartez bultzatuko dira, eta Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuaren lankidetzaz izango dute.

Gainera, Nafarroako Gobernuak bere baliabideen bitartez idatziko du inguruan dagoen Erdi Aroko zubia berritzeko proiektua, oinez iristeko bitarteko gisa.

Iberoko dorrea

Iberoko dorrea Erdi Aroko burdinola zaharreko industria-gunekoa da, eta Leitza udal-mugartean kokatzen da. Parajea Goizuetaren mugakidea da, eta horren herri-gunea bi kilometro baino gutxiagora aurkitzen da.

Gunean, dorrea bera, Erdi Aroko zubia, erabiltzen ez den baserria eta burdinolaren hondakinak kontserbatzen dira. 2011. urtean, Leitza udalak lursailak eta higiezinak erosi zituen 227.470 euroren truke, kultur paisaia hori definitzen duen ondare ukigarri eta ukiezina zaintzeko asmoarekin.

Gogoratu behar da Iberoko dorrea ondasun inbentariatu bezala deklaratu zuela Kulturako Zuzendaritza Orokorra. Egitura, ustez,

Nafarroako Carlos II.aren garaikoa da, 1349 eta 1387 urte artekoa.